

DERIO UDALERRIAREN HIRIGINTZA DIAGNOSTIKOA, GENERO IKUSPEGITIK



“Hiriak herritar independenteentzat eta ibilgailudunentzat eginda daude, etxetik kanpo lan egiten dutenentzat eta etxeaz eta familiaz arduratu beharrik ez dutenentzat. Profil hori betetzen ez dutenek oztopoak eta zailtasunak besterik ez dituzte aurkitzen. Izan ere, hiriak txarto funtzionatzen badu, oro har, are okerrago funtzionatuko du emakumeentzat.”

AURKIBIDEA

Or.

I. HIRIGINTZA GENERO IKUSPEGITIK. OHARRAK.

1

II. DERIO UDALERRIAREN HIRIGINTZA DIAGNOSTIKOA, GENERO IKUSPEGITIK

2

1. Udaletxeko parkeko zuhaixkak 5
2. Tren-geltokiko eskailerak 6
3. Euskal Herria kaleko 4 eta 6 atarietako lorategia 7
4. Larrabarriko atzeko aldea 8
5. Urbasa gunea 9
6. Uribe parkea 11
7. Bakearen Plazako arkupeak, errepide orokorraren paraleloan
daudenak 12
13
8. Goiko Kalea, Mendia taberna dagoen inguruan 14
9. Autopistako tunela 15
10. Txosna parkea 16
11. Gaztelumendi plazako parkea 17
12. Mungialde etorbideko 16. ataria 18
13. Pintaketa iraingarriak 19
14. San Isidro bidea 20
15. Butroi kaleko 5-7 zenbakietako kale-argiak 21
16. Hariztiko pasabidea Mungialde etorbiderantz

III. ONDORIOAK

22

I. HIRIGINTZA GENERO IKUSPEGITIK. OHARRAK.

Arlo publikoa eta pribatua dira ugaltze- eta ekoizpen-funtzioak gure gizartean historikoki izan den rol-banaketaren eta sexuen arteko desberdintasunaren isla. Emakumeei arlo pribatua eta ugaltze-funtzioa egokitu zaizkie, ordaintzen ez dena, hain zuzen: pertsonen eta etxearen zaintzaz arduratu behar izan dute. Gizonei, bestalde, arlo publikoa eta ekoizpen-funtzioa egokitu zaizkie; ordainduta dauden lanak eta kalea.

Idea hori abiapuntu hartuta, eta gogoan izanda emakumeei ez zaiela gai publikoei buruzko erabakietan parte hartzeko aukerarik eman, logikoa da pentsatzea inork ez dituela kontuan hartu emakumeek herritar gisa dituzten beharrizanak, eta hirigintzaren arloa ez da salbuespena.

Hala, nahiz eta errealitate hori aldatzen ari den, gure herriak lanera joateko diseinatuta daude, ez bertan bizitzeko. Ahaztu egin dira edo bigarren mailan utzi dira "ekoizpen" jarduerarik egiten ez duten pertsonen beharrizanak.

Familiaz arduratzea betidanik izan da emakumeen erantzukizuna; haiek arduratzen dira erosketez, haurrak eta adinekoak medikuarenera eramateaz, seme-alabak eskolara eramateaz eta abarrez. Ondorioz, emakumeak dira kalean gehien ibiltzen direnak, eta, horren ondorioz, kaleak ondoen ezagutzen dituztenak.

Emakumeek bizipenen eta zaintzen dituzten pertsonen bitartez ezagutzen dute herria; hala, hobeto ulertzen dituzte segurtasunarekin, argiztapenarekin, oztupoekin eta trabekin zerikusia duten elementu guztiak.

Etiket kanpo ere lan egiten duten emakumeentzat, laneko eta etxeko bizimodua uztartzea arazo larri bihurtzen da sarritan. Gainera, egoera are larriagoa da familia-kargak badituzte. Alde horretatik, herrien diseinua ez da oso lagungarria: kalean dabiltzanek hainbat oztopo saihestu behar dituzte, garraio publikoaren ordutegia bidaietara moldatu behar dute, zerbitzuetara iristeko zailtasunak dituzte, eta, are okerrago, saltoki handiak irekitzen dira auzoetatik hurbilago dauden eta erosoagoak diren denda txikien kaltetan... Horrek guztiak izugarri zailtzen du emakumeen bizimodua.

Aurreko guztia kontuan hartuz, genero-ikuspegia duen hirigintzari buruz dihardugunean, honako hau esan nahi dugu zehazki:

MUGIKORTASUNA.- Emakumeek erabiltzen dute gehien garraio publikoa. Askotan, baina, garraio publikoen ibilbideak eta ordutegiak ez datoz bat emakumeen beharrezanekin.

IRISGARRITASUNA.- Kaleak ez direnean ondo diseinatzen edo zaintzen, emakumeek jasan ohi dituzte ondorioak. Oinezkoek traba eta oztopo asko gainditu behar dituzte, eta gogoan izan behar dugu emakume asko haur-aulkiekin, poltsekin eta erosketak egiteko orgatxoarekin ibiltzen direla batetik bestera. Horrez gain, emakumeak arduratzen dira, oro har, mugikortasun mugatua duten pertsonaz; beraz, gurpil-aulkiei bultza egitez.

SEGURTASUNA.- Edozein pertsonak jasan dezake eraso bat edo egoera arriskutsu bat hirian; hala ere, emakumeak dira eraso sexistak jasaten dituztenak. Gogoan izan behar da hiriaren diseinua lagungarria izan daitekeela egoera arriskutsuak gutxitzeko eta emakumeek seguruago daudela sentitzeko. Gure herri eta hirietako traba arkitektoniko eta bisualek, argiztapen faltak eta txoko ilunek mugatu egiten dituzte emakumeek kalean segurtasunez ibiltzeko dituzten aukerak.

IRUDIKAPEN SINBOLIKOA.- Emakumeek historiari eta gizarteari egin dizkieten ekarpenak, oro har, itzalean gelditu dira, uste izan baita ez zutela garrantzi handirik. Ondorioz, kaleek, parkeek edo plazak ez dute emakume izenik jaso, eta oso gutxitan egiten zaie erreferentzia emakumeei gure herri eta hirietan.

ZERBITZUAK.- Batez ere emakumeek erabiltzen dituzte zerbitzuak, hala osasun-zerbitzuak (analisiak eta azterketak, seme-alabak medikuarenera eramatea, familiako kide guztien errezetak jasotzea...), nola merkatuak eta saltokiak, baita garraio publikoak, plazak eta parkeak ere. Zerbitzu horien funtzionamenduari eta ordutegiari buruz zer iritzi duten jakiteak asko lagunduko liguke hobetzen.

Herri eta hiri atseginagoak lortzeko, bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko moduko udalerriak lortzeko, hiru ikuspuntu hartu behar dira kontuan: planak egin eta

politikak diseinatzen dituztenena, horiek exekutatzeko dituztenena eta espazioak erabiltzen dituztenena.

II. DERIO UDALERRIAREN HIRIGINTZA DIAGNOSTIKOA, GENERO IKUSPEGITIK

Ikerketaren xedea

Diagnostiko hau egitean, bi alderdi aztertu dira: segurtasuna eta irisgarritasuna. Diagnostikoaren helburua zen emakumeek udalerrian zer arrisku ikusten dituzten jakitea, baita udalerrian lasai mugitzea eragozten dieten traba edo oztopoen artean, zein identifikatu dituzten ere.

Erabilitako metodologia

Bilera bat antolatu zen emakumeekin, eta, bertan, zer egin nahi genuen azaldu genien, eta laguntza eskatu. Profil desberdina eta bizitzeko eta mugitzeko era desberdina zuten Derioko emakumeak bilatu genituen. Hori oinarri hartuta, hau izan zen lantaldearen osaera:

- Bi neska gazte. Batek kanpoan ikasten du, baina asteburuetan Deriora itzultzen da.
- Etxetik kanpo ere lan egiten duen seme-alabadun emakume bat.
- Lanbidez zaintzailea den emakume bat.
- Etxetik kanpo lan egiten duen eta udalerrian bizi den emakume bat.
- Hirigintzako zinegotzia.
- Berdintasuneko zinegotzia.
- SUTONDOAN elkarteko zuzendaria.
- *BEITU*ko kazetari bat.
- Mankomunitateko berdintasun-teknikaria.

Ibilbideak egiteko erarik egokiena udalerria hirutan zatitzea zela erabaki genuen:

- ❖ Erdigunea – Larrabarri – Urbasa
- ❖ Txosna – Aldekone
- ❖ Ganbe – Errementariñe

Bi hilabete behar izan dira emakumeekin udalerrian zehar ibilbide guztiak egiteko. Identifikatu diren toki guztiei argazkiak atera zaizkie, eta proposamenak egin dira.

1. Udaletxearen parkeko zuhaixkak

AURKITUTAKO ARAZOAK

Udaletxe ondoko haur-parkearen sarbide batean hainbat zuhaixka daude, eta ezin da atzekoa ondo ikusi. Emakume batek esan du ezin direla parkean jolasean ari diren haurrak ikusi. Parkera iristeko aldapa ere aipatu dute, oso handia eta irristakorra baita.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK

Zuhaixken garaiera txikitzea edo zuhaixkak kentzea eta haien ordez loreak edo landare baxuagoak jartzea proposatu dute.

Aldaparen inklinazioa gutxitu beharko litzateke, eta zerbait egin beharko litzateke hain irristakorra izan ez dadin; esaterako, produkturen bat edo laprast ez egiteko sistema bat erabiltzea.

2. Tren-geltokiko eskailerak

AURKITUTAKO ARAZOAK

Lurpeko pasabideak beti dira zailak, segurtasunari dagokionez. Kasu honetan, argi nahikoa dago. Emakumeek aipatu duten arazoa da aldapak irrist egiten duela.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK

Lurpeko pasabideko hormak eta sarbideak garbi eta pintadarik gabe daudela bermatu beharko litzateke, pintadek ez baitiote argiari hormetan islatzen uzten.

Emakumeek aipatu dute aldapa oso irristakorra dela, eta laprast ez egiteko banda batzuk jarri beharko liratekeela.

3. Euskal Herria kaleko 4 eta 6 atarietako lorategia

AURKITUTAKO ARAZOAK

Toki horretan ikusgarritasun gutxi dago, kale-argiak dauden arren. Emakumeek aipatu dute gauean atari horietan sartzean segurtasun falta sentitzen dutela.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Emakumeek proposatu dute plazaren erdigunean beste kale-argi bat jartzea, gune hori hobeto argiztatzeko.

4. Larrabiko atzeko aldea

AURKITUTAKO ARAZOAK

Bakartuta dagoen gunea da, eta ez dago ondo argizatuta. Emakumeek esan dute gune horretan jendea txakurrarekin ibiltzen dela joan-etorrian, eta pertsona horiek kexatu egin direla.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Bidea argituko duten argi baxuak jartzea proposatu dute.

5. Urbasa Gunea

AURKITUTAKO ARAZOAK

Bizitegi-auzo honetan hainbat arazo aurkitu dituzte, bai segurtasunari, bai mugikortasunari dagokienez.

1. Zuhaitzek kale-argiak estaltzen dituzte.
2. 22 zenbakiko atariaren ondoan landare-hesi bat dago, eta horrek ikusgarritasuna mugatzen du.
3. Zuhaitzen sustraiak gorantz igo dira, eta espaloia desitxuratu dute. Ondorioz, oso zaila da bertatik haur-aulki batekin edo gurpil-aulki batekin igarotzea, baita adineko pertsonak bertatik ibiltzea ere.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK


1. Zuhaitzen beheko adarrak moztu beharko lirateke, argia estali ez dezaten; bestela, argi gutxien dagoen tokian beste kale-argi bat jarri beharko litzateke.

2. Landare-hesia kendu beharko litzateke, eta baxuago bat jarri. Horrela, pertsonak ingurukoak ikusi ahalko ditu eta ingurukoek bera ikusi ahalko dute, baita urrunetik ere.

3. Zuhaitzen sustraien eraginez desitxuratu den espaloian lanak egin beharko lirateke, berdintzeko. Neurri hori proposatu diren gainerako neurriak baino handiagoa da. Oraingo materiala aldatzea eta gogorrago bat jartzea proposatu dute.

Toles daitezkeen kale-argiak jartzea proposatu dute. Horrela, argi-puntua mugitu egin ahalko da, eremu bakoitzak dituen beharren arabera.

Bihurgunean zebra-bide bat dago. Komenigarria litzateke zebra-bide hori altxatzea, autoak bertatik astiroago pasa daitezzen; izan ere, orain azkar pasatzen dira, eta hori arriskutsua da oinezkoentzat.



6. Uribe parkea

AURKITUTAKO ARAZOA

Aisialdi-eremu zabala da, eta pertsona asko igarotzen dira bertatik, puntu batetik bestera joateko eremu osoa inguratu behar ez izateko. Gauean, emakumeek ez dute bidezidor hori erabiltzen, argi gutxi dagoelako.



Parkeko zati batean, igerilekuetatik gertuen dagoenean, argi gehiegi dago.

PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK

Aipatu da parkea gurutzatuko duen bide diagonal bat egitea eta argi baxuekin argizatzea, parkea gauez ere gurutzatu ahal izateko; izan ere, argi horiekin pertsonak ingurukoak ikusi ahalko lituzkete, baita ingurukoek haiek ere.

Piraten barkuko kulunken ondoko pasealekuak argi gutxi du. Emakume batzuek iradoki dute kale-argiak igerilekuen ondoko zatitik eremu honetara ekartzea, igerileku ondoan argi gehiegi baitago.

7. Bakearen Plazako arkupeak, errepide orokorrarekiko paralelo daudenak

AURKITUTAKO ARAZOA

Zuhaitzek eragotzi egiten dute eremu hori behar bezala argizatzea, batez ere batek.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Zuhaitz hori botatzea iradoki da; izan ere, asko daude, eta ez luke kalte handirik eragingo.

8. Goiko Kalea, Mendia taberna dagoen inguruan

AURKITUTAKO ARAZOA

Egunez jende asko ibiltzen da, baina gauez, etxeetan argirik ez dagoenean eta dendak itxita daudenean, argi gutxi egoten da, eta emakumeak ez dira seguru sentitzen bertatik igarotzean.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Konponbiderik onena izango litzateke eremuaren erdi-erdian kale-argi bat jartzea, ingurua hobeto argiztatzeko.

9. Autopistako tunela

AURKITUTAKO ARAZOA

Tunelek eta lurpeko pasabideak ez dira normalean toki seguruak izaten. Kasu honetan argitasuna egokia da, baina tunelaren amaieran, eskuinaldean, bide bat dago, eta ezin da ikusi bertan inor ezkutatuta dagoen.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK

Konponbiderik gomendagarriena seinalean ispilu bat jartzea izango litzateke, izkina horretara iritsi baino lehen bidearen amaiera ikusi ahal izateko eta, hala, beste aldean inor dagoen ikusteko.

Halaber, gomendatzen da tunelean graffitirik ez egotea; izan ere, batzuetan ez diote argiari hormetan behar bezala islatzen uzten, eta ilundu egiten dute pasabidea.

10. Txosna parkea

AURKITUTAKO ARAZOA

Eremu hau nahiko iluna da gaez.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Zenbait emakumek proposatu dute plazan argi-puntu gehiago jartzea.

11. Gaztelumendi plazako parkea

AURKITUTAKO ARAZOA

Emakumeek diote gauean argi gutxi dagoela, eta askotan familiak etxera joaten direla iluntzean argi gutxi egoten delako, ez benetan berandu delako.

Horrez gain, bertara sartzea zaila da mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat, baita haurrentzako orgatxoa edo aulki gurpildunak eramaten dituztenentzat ere.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK

Zenbait emakumek diote argi-puntu gehiago jar daitezkeela plazan, edo lehendik daudenen intentsitatea areagotu, eremuaz benetan gozatu ahal izateko.

Sarbidearen kontua zailagoa da, titulartasun pribatukoa delako, nahiz eta erabilera publikokoa izan. Egokiena eskailera-mailak beheratzea izango litzateke, pertsona guztiek arazorik gabe sartzeko aukera izan dezaten.

12. Mungialde etorbideko 16. ataria

AURKITUTAKO ARAZOA

Inguru horretako emakumeetako batek aipatu du autoek garajeetako sarrerak erabiltzen dituztela biribilgune gisa, buelta emateko, eta hori oso arriskutsua da edozeinentzat.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Aipatu dute arazoa konpontzeko oztopo-zutoinak jarri beharko liratekeela, edo jardinera bat garajeetatik gertu, autoek ez dezaten bertan buelta eman. Dena den, pertsonak igarotzeko lekua utziko da beti.

13. Pintaketa iraingarriak

AURKITUTAKO ARAZOA

Askotan, pintaketak bereziki iraingarriak dira, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurkako eraso zuzenak.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Kasu honetan, tren-geltokiko lurpeko pasabidean dago, baina udalerriko edozein lekutan ager daitezke eta lehentasuna eman beharko litzaioke horrelako mezuak dituzten pintaketak garbitzeari.

14. San Isidro bidea

AURKITUTAKO ARAZOA

Kasu honetan gerta daitekeen arazoa da landarediak bidea estaltzea. Bidea nahiko zabala da, baina gerta daiteke.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Pertsonen pasabidea ondo zaintzea eta landararik gabe mantentzea, ikusgarritasuna ona izan dadin.

15. Butroi kaleko 5-7 zenbakietako kale-argiak

AURKITUTAKO ARAZOA

Emakumeek diote ez dagoela argi nahikorik ez errepidean, ez espaloian.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Kale-argien argi-intentsitatea areagotzea, errepidea eta espaloia argizta ditzaten.

16. Hariztiko pasabidea Mungialde etorbiderantz

AURKITUTAKO ARAZOA

Asko erabiltzen da bide hau, baina ez dago argi nahikorik. Bide luzea da; ezin dugu nor datorren ikusi, eta haiek ere ezin gaituzte gu ikusi.



PROPOSATUTAKO KONPONBIDEA

Bidea argiztatzeko behar adina argi-puntu jartzea.

III. ONDORIOAK

Derioko kaleak emakumeentzako mugikortasunaren eta segurtasunaren ikuspegitik aztertu ondoren, beharrezkotzat jo da etorkizunera begira udalerrria eraikitzeke eta hiritartzeko modua berrikustea.

Segurtasunaren eta mugikortasunaren arloan hautemandako hutsuneak direla eta, ikusi da Udalak ez duela jarduketa handirik egin behar, eta horietako asko egiteke, nahikoa dela landaredia nola hazten den kontrolatzea, ingurua kontrolatzea eta leku jakin batzuetako argiztapena berrikustea.

Bestalde, esan behar da bete egin dela proiektu honen helburu nagusia; izan ere, Derioko hiri-diagnostikoa genero-ikuspegitik (mugikortasuna eta segurtasuna) egitea lortu da; halaber, helburu hauek ere erdietsi dira:

- Emakumeak eremu publikoaren erabiltzaile aditu gisa aintzat hartzea.
- Emakumeak ahalduntzea eta animatzea, udalerrriaren erabakietan parte har dezaten.
- Emakumeek arriskutsutzat dituzten lekuak identifikatzea.
- Proposamenak egitea hautemandako puntuetarako.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu honetan parte hartu duten emakume guztiei, haiek gabe proiektu hau ezinezkoa izango litzateke eta.